

Subjektuak, mugaturik bait dago edo bere a priori-zko formak berarekin bait dakartzan nahitaez, mundua ezagutzerakoan mundua onartzen du, gaur egun. Baina mugapen honen *esentziak berak *formak ere aldakorrek direla eta historian zehar eboluzionatuz doazela adierazten digu. Azkenik, arlo zientifikoz guztietan gizakiak a priori-zko egiturak jartzeko dituela esan behar da; egitura hauek, hala ere, ez dira *absolutuak; aitzitik, testuinguru sozial, historiko, eta abarren menpe daude.

Elena Martinez

Aäl, Anathon

Nasseby-n (Norvegia) 1897an jaio eta 1943an hila. Filosofoa da, batipat ondoko arlo hauek landu eta aztertu zituen: Filosofia eta erlijioaren historia, natur filosofia, metafisika eta psikologia esperimentalak. Filosofiaren historia eta giza existentziaren lotuak zeuden beraren eritziz, filosofiaren historiak, sistema guztien aurkezpen kronologiko soila ezezik, errealitate edo une historikoen *adierazpen bat ere ematen bait du. Obra: Der Logos. Geschichte seiner Entwicklung in der griechischen Philosophie und der christlichen Literatur, 1896-1899.

Ab esse ad posse valet consequentia

Izatek ahal izatera ondorioz ateratzen dena zuzena da.

Argumentatzeko era bati dagokion esaera bat da.

Ab universali ad particulare valet consequentia

Unibertsaletik partikularrera ondorioz ateratzen dena zuzena da.

Argumentatzeko era bati dagokion esaera bat da.

Abbagnano, Nikola

Palerno-n (Italia) 1901ean jaioa. Existentiaren filosofoa da, Erdi Aro, Errenazimendu eta Aro Modernoko filosofiaz azterketa aipagarriak egin zituen. Berak aldeztutako ikuskera existenzialista beste *existentzialismotik bereizten da, nahiz eta joera aleman ta frantsesen eragina jasan. *Existentzia hau "moduen" bidez adierazten eta oinarritzen da: ahalegina, erabakia, aukera eta zintotasunaren bidez, alegia. Obra: Il principio della metafisica, 1936; Introduzione all'existenzialismo, 1942 (espainieraz itz.: Introducción al existencialismo, 1955).

Abelardo, Pedro

"Peripateticus palatinus" deitua, Le Pallet-en (Nantes) jaio zen 1079an eta 1142an hil St. Marcel sur Saône-n. Ikasketak Parisen egin zituen, Gilermo Champeaux-ekoa zuela maisu. Gero gogor borrokatu zen maisuaren ideien aurka. Batzuk metodo *eskolastikoaren sortzaile bezala aurkeztu dute Abelardo. Sortzaile izan ez bazen ere, bai behintzat zirikalari. Beraren lanik garrantzizkoenak Unibertsalei eta Etikari buruzkoak dira.

Obra: Ethica edo Scite te ipsum, 1125; Dialectica, 1125.

Abenhazan

Ik. Ibn H̄azm.

Abenjaldu

Tunisian 1332an jaio eta 1406an hilá. *Arázo metafisikoez arduratu zen filosofo arabiarra.

*Historiari buruzko beraren *doktrina da batez ere garrantzitsua. Filosofo honen usitez, *indukzioaren bidez idoro ditzakegun legeen arabera gauzatzen da historia, lege hauek gizarte-mota guztietarako aplikagarriak bait dira. Obra: Muqaddima (Historia unibertsalaren hastapenak).

Abenmasarra

Ik. Ibn Masarra.

Abentofail

Ik. Ibn Tufayl.

Absolutua, Zera

Sin.: Erabatekoa dena

Absolutua (adjektiboa) erlatiboaren kontrako da, eta gauzaren bat bere horretan eta besteren bati baldintzapetu gabe hartzen dela adierazten du. Horrela esan ohi da: zero absolutua, gehiengo absolutua, balio absolutua, etab.

Hemen nolabait izen bihurturik bezala hartzen dugu: Zera absolutua. Hiru mailatan uler daiteke zera absolutua: *metafisikoan edo izanaren mailan; *epistemologikoan eta *logikoan edo ezagutzearen mailan; axiologikoan edo balioaren mailan.

Metafisikan, Zera Absolutua maiuskulaz idazten da sarritan. Eta honela definitzen da: berez dena eta beste ezerer eta inoren

esku edo menpe ez dagoena, eta beste zera guztiak beragandik dauzkana. Zera ororen oinarria da Zera Absolutua. Adiera honen arabera, Absolutua eta Azkengabea berdinak dira. "Berez izateak" izateko arrazoi osoa beregan duela adierazten du.

Absolutuaren adiera, filosofi pentsabide desberdinen arabera, izan daiteke: idealista, materialista, panteista, teista nahiz dualista. Bide honetan, filosofiaren historian zehar, mila adiera desberdinetan aurki daiteke zera absolutuaren *kontzeptua, eta araberako izena: Atman eta Brahman indiarak, Dao txinatarrak, Platon-en *Ongia, Aristotele-ren Lehen Kausa, Neoplantondarren Bata, kristau-filosofiako Jainko Kreatzailea, Fichte-ren *Nia, Schelling-en Oinarri Unibertsala, Hegel-en *Izpiritua, etab. Zera absolutuaren izena eta adiera desberdinak dira.

Azken-azkenburukoa adierazteko erabiltzen dute filosofoek Zera Absolutua: Bat izanik, aniztasunaren sorburu erabatekoa dena. Hitz bera ("Zera Absolutua"), Schelling-ek eta Hegel-ek bereganatu egin zuten filosofiako hizkerarako XVIII. mendearen azkenean, "Zera Absolutuaren filosofia" asmatu zutenean. Schelling-ek dio, hain zuzen, "Filosofia Zera Absolutuaren zientzia dela". Nikola Cusa-koak, lehenago, sistematikoki "Zera Absolutua" erabilia zuen, filosofiaren azken gaia edo *objektua adierazteko. Horrenzat, berriz, Zera Absolutua Jainkoa da.

Zera Absolutuaren filosofoentzat, adiera desberdin eta guzti, funtsezko esanahi bat bera du Zera Absolutua: *Osotasuna, erabatekotasuna, batasuna adierazten du, alegia.

Ezagutzaren filosofian, zera absolutua da: ezagutu ala ez, bere izatea duena, ezagumenetik apartekoa. Alde honetatik, oinarri-oinarrizkoa da zera absolutuaren arazoa filosofiarentzat: horri ematen zaion erantzunaren arabera, filosofi joera *errealismo, *idealismo edota *agnostizismo bezala izendatzen da. Logikan, beste zerbaiti buruz harreman hutsa ez den hitza --e.b., aita semeari buruz edo, alderantziz--, edota besteren baten determinatzaile hutsa ez dena, absolutua dela esaten da.

Maila axiologikoan, *balio absolutua da, bere baliozkotasuna inolako eta ezêren baldintzarik gabekoa denean.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Erlatibismoa.

Abstrakzioa

Hor dagoen harri ilara hori zirkulu bat dela, edo *gizakia *animalia dela adierazterakoan, burulan abstraktua egin dela esan ohi da. Zentzu honetan hartuta, eta gogoeta hutsa denez, abstrakzioa bereizitasunak alboratu eta ezaugarri orokorrenak bereiztea da. *Aristotele izan zen *ezagutza nola bideratzen den irakasteko abstrakzio-teoriaz baliatu zen lehen filosofoa: *izakiak *partikularrak eta indibidualduak dira, izan; baina ezagutu, *unibertsalki ezagutzen ditugu. "Unibertsalki" ezagutzeak zera adierazten du: gure adimenak abstraitzeko duen gaitasuna, *kontzeptuak lantzeko dohaina, alegia (Anal. Post.I, 81b; eta II 19,99b 17-100b 17). Boezio-k Porfirio-ren Isagoge-ri egiten zizkion komentarioak zirela medio, Erdi Aroan eztabaida galanta piztu zen ea *adimenak abstraitzen dituen kontzeptuek benetako izakitasunik zutenentz galdetuz. Ezagutzak edozer ezagut ahal dezan, *San Tomas Aquino-koak abstrakzio gintza defendatu zuen, zeina bi motatakoa bait da: a) izate partikularretatik unibertsaltasuna alderatzen duen abstrakzioa (adibidez, "animalia" eten egiten da "gizaki"tik); b) materiatic forma alderatzen duena (adibidez, kromlech harri horietatik "zirkulu" a ateratzen da (ik. S. Theol. I, q.XL art. 3). Aintzinako eskolas-tikoe eta gaurko tomista berriek abstrakzio-doktrina berauxe onartzen dute, zertxobait taxutua, noski (ik. G.Van Riet, La théorie thomiste de l'abstraction, rev.Ph. de Louvain, 50, 1952).

Zentzu honekin zerikusirik ez duen zentzu *dialektiko batez erabili ohi zuen Hegel-ek abstrakzioa: bere izan eta ez-izan baitatik, *izpiritua izpiritu unibertsal bilakatuz doan heinean iragan behar den une berezi bat izango litzateke abstrakzioa; izate positibo bezala agertzen den una, baieztatzearen aldia, alegia. Une dialektiko hori ezetzatu egiten da kontrarioak eragirik, eta abstraktua zena konkretatu egiten da. Konkretu hori cum-crescere-tik letorke, hau da, kontrako mugen bortxaz haziz doan batasun berria izango litzateke. Abstrakzioa adimenak edo Verstand-ek sortua da; konkretzioa, berriz, *arrazoimena edo Vernunft-ek, ezetzapen-ekintzaren ondoren. Izpirituak dagian lanaren une dialektikoa dateke, beraz, abstrakzioa.

Hala ere, abstrakzioz sortutako ezagutza zokoratu nahian nonbait, gure garaiko korronte fenomenologikoez zientziaz jakin daitekeena eta filosofiak jakin eraz lezakeena berezi nahi lukete. Filosofiak zuzenki gauraren muinera jo beharko luke, konkretzioetara murgildu: bizitzaren edo *kontzientziaren oldarraren baitara (Bergson); *existentziaren baitara (Husserl, Sartre, Merleau-Pon-